

# TOLOSALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko irailaren 18a. IX. urtea. 2.645. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Azoka bereziaren antolatzaileek eta parte hartzaileek kultur etxean egin zuten aurkezpena, herenengun. I.T.

## Txapelketa Nagusiko bertsoen festari Amasa-Villabonan emango zaio hasiera

Irailaren 29an izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen saioa; txapelketan Amaia Agirre, Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze izango dira eskualdeko ordezkariak o6

## «Osasun zerbitzurik gabe» gelditu direla salatu dute

Jatorrin, TOPA eta Gipuzkoako beste hainbat gizarte eragile Eusko Jaurlaritzan izan dira o5

## Piperra protagonista duen azoka bereziak gune eta postu gehiago izango ditu

Hauspoa elkarteak antolatuta, 'Ibarra, Azoka eta Piparra' egingo dute igandean; egitarau bete-betea prestatu dute, eta abereak, lehiaketak, artisauak, haurren gunea, bazkaria eta muskarik ez da faltako o3

## Kultur etxeko tailer eta ikastaroetan aukera berriak jarri dituzte

Tolosako Udaleko Gazteria, Berdintasuna eta Kultura sailen artean, hamazazpi ikastaro antolatu dituzte o2

## 20 kilometroko Tolosa-Hernio-Tolosa proba izango da larunbatean

Ibilbide «gogor» eta «atsedenik gabea» bete beharko dute partaideek; 2.300 euro banatuko dituzte saritan o4

**Hirurogeitahirukoak**

**Laskorain ikastolaren hastapenak**

Laskorain ikastolaren lehen urteetako protagonisten ahotik, ordubetez: sortzaile, irakasle, guraso, langile eta ikasleek bizi izandako gorabehera eta anekdotak.

Tolosan irailak 19, osteguna  
Togio-en (EH plaza) 20:30etan.  
Barrerak 3 euro sailatik KMK dendan eta ikastolako idazkeritzan.

Agurak! **AHORA!**

**Udal Euskaltegia**

**matrikula**  
irailak 2 -13

**Aitzol**  
Rondilla 34-B 3.  
20400 TOLOSA  
tel.: 943651006 / 943652343

builego ordutegia  
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

# Eskaintza berritua abian da, Tolosako kultur etxeko tailerretan

Hamazazpi ikastaro antolatu dituzte, gazteria, kultura eta berdintasun sailaren artean

## ITZEA URKIZU

Ikasturte berriarekin batera, Tolosako kultur etxeko tailer eta ikastaroen eskaintza ere berrituta iritsi da aurten, bereziki, emakume eta gazteentzako. Hamazazpi ikastaro eta tailer izango dira guztira, Tolosako Udaleko kultura, berdintasun eta gazteria sailek antolatuta, eta Antonio Maria Labaien kultur etxeko pintura tailerrean egindako aurkezpenean, Igor Ezenarro, Miren Urkola eta Mikel Arreseigoren zinegotziak izan dira; guztiak eskaintzaren aniztasuna nabarmendu dute.

Hamazazpi ikastaro horien artean, batzuk urterokoak izango dira, ikasturte ikasturte harrera ona izaten dutenak. Beste batzuk, aldiz, lehen aldiz eskainiko dituzte aurten: «Berrikuntzak badira aurten, gazteen ikastaroetan eta emakumeei begira antolatutako etan ere; era berean, aurretik eskaintako saioen bateko edukia sakontzeko aukera ere izango da, parte hartzaileek hala eskatuta», azaldu du Miren Urkola parekide-tasun zinegotziak.

Horrela, aurreko ikasturteetatik errepikatuko diren ikastaroak kulturari dagozkionak izango dira, eta tolosarrek nahiz eskualdeko herritarrek antzerkian, argazkigintzan, ballelean, dantza garaikidean, ehaziri lanetan nahiz patchwork-ean, pinturan, eskulanetan eta zeramikan trebatzeko aukera izango dute. Igor Ezenarro kultura zinegotziak na-

barmendu duenez, «ikastaro hauek oso errotuta daude jada Tolosan, harrera ona baitute; urtero 300 lagun inguruk ematen dute izena, eta zenbaitetan itxaron zerranda ere izaten da».

Aipaturiko tailer hauen izen-emateari dagokionez, iazko ikasleentzako zabalik da jada, hilaren 20ra bitarte; ikasle berriek, berriz, irailaren 23tik 27 bitarte izango dute aukera, kultur etxean.

## Emakumeak, burujabeago

Jabekuntza eskolako egitarauaren barruan eskainiko dituzte emakumeei begira tailerrak, eta Miren Urkolak eskola honen nondik norakoak nabarmendu ditu: «Emakumeen esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatuzko; gorputzarekin gozatzeko ikasteko; diskurtsoak eman, artea egin eta aldarrikapenak garatzeko, nahiz beste hainbat gauzarako gunea da».

Helburu hauetara iristeko, emakumeen burujabetzara bidean, zenbait tailer errepikatuko dituzte, saio berriekin batera.

Lehen saioa urriaren 2an izango da, *Komunikazio estrategien tailerra* hasiko baita: *Faktoria Lilako* arduraduna den Irantzu Varela kazetariak zuzendutako tailerra da, eta *Pikaramagazine.comeko* zuzendari June Fernandezek dinamizatuko ditu saioak. Urriaren 8, 10, 15, 17, 22 eta 24an izango da ikastaroa, eta hiru bloke eskainiko dituzte; aukera izango da blokeetako batean edo bitan bakarrik izena emateko.

Halaber, emakumeentzako autodefentsa ikastaroa ere urriaren izango da, hilaren 25 eta 26an, eta Maitena Murroy-k gidatuko ditu saioak.

Azaroan, berriz, bi tailerretan parte hartzeko aukera izango da: batetik, Aurore Iturriozek *Auto-*



Mikel Arreseigor, Igor Ezenarro eta Miren Urkola, ikastaroen aurkezpenean. ITZEA URKIZU

*defentsa feminista burokrazia ekonomikoaren kontra* izeneko saioa eskainiko du, eta bestetik, Zaida Fernandezek *Zuri zer kontatu dizute feminismoaz?* izeneko hitzaldia eskainiko du.

Azkenik, emakume etorkinentzat bereziki prestatutako bi tailer ere izango dira aurten. Urriaren 2an, *Emakume migratzaileak eta komunikabideak: zurrumurruak, aurreiritziak eta estereotipoak* saioa izango da, 17:00etatik aurrera. Azaroan, berriz, hilaren 23an, *Nik ere badiut ikasketak, nola homologatu?* 16:00etatik aurrera eskainiko du Katja Reinberg-ek.

Izen emateak saio bakoitza baino bi egun lehenago irekiko dituzte, eta jabekuntza eskolako tailer guztiak doakoak izango direla nabarmendu du Miren Urkolak.

## Kontsumo arduratsua hizpide

Gazteria sailak antolatutako ikastarotako berrikuntza nabarmena adinarena izango da aurten: «Gazteriako ikastaroak 30 urte artekoen zati ziren orain artean, baina adina 35 urtera igotzea erabaki dugu ikasturte honetan», azaldu du Mikel Arreseigoren zinegotziak.

Horrela, sail honi dagozkion hiru tailer antolatu dituzte; hauek berriz, bi iaz ere egin zituzten, eta

hauez gain, ikastaro berri bat prestatu dute.

Urriaren 8an hasiko da tailerrik berriena, eta hiru hilabetez, kontsumo arduratsua izango da saioen muina. *Landaketa eta baserri giroa* izenburupean, astartetan teoria saioak egingo dituzte, 18:30etik 20:30era bitarte, eta larunbat goizetan, berriz, irteerak egingo dituzte, saio teorikotik landutakoa praktikan jartzeko. «Kontsumo arduratsua, landa ingurunea nahiz lehen sektoreko egoera ezagutu nahi duten gazteei begira antolatutako ikastaroa da, eta kontsumitzaile zentzudun eta arduratsua izateko tresnak eskaini nahi dizkiegu», azaldu du Arreseigoren.

Beste bi ikastaroei dagokienez, DJ eta scratch ikastaroa urriaren 9an hasiko da, Esne Beltzako DJ Zigoren eskutik, eta serigrafia saioak BOX. Aiko kideek gidatuko dituzte, urriaren 19tik aurrera.

Gazteria sailari dagozkion tailer guztien prezioa 20 eurokoa izango da, eta interesa dutenek kultur etxean nahiz *gazteria@tolosakoudala.net*en eman dezakete izena.

Aipaturiko ikastaro guztien inguruko informazio zehatzagoa eskuratzeko, *www.tlsbat.net* web ataria bisita daiteke, eta baita kultur etxera joan ere.

## ↓ Ikastaroak

### Kultura

Antzerkia  
Argazkigintza  
Balleta  
Dantza garaikidea  
Ehaziri lana eta patchworka  
Pintura eta marrazketa  
Eskulanak  
Zeramika

### Berdintasuna

Komunikazio estrategien tailerra  
Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa  
Autodefentsa feminista burokrazia ekonomikoaren kontra  
Zuri zer kontatu dizute feminismoaren gainean?  
Emakume migratzaileak eta komunikabideak: zurrumurruak, aurreiritziak eta estereotipoak  
Nik ere badiut ikasketak, nola homologatu?

### Gazteria

Landaketa eta baserri giroa  
DJ eta Scratch  
Serigrafia

## ↓ Iragarki laburrak

### ETXEBIZITZA

**Alokagai.** Alkizan, 120 metroko baserri zati bat alokatzen da, erabat berritua, bi solairukoa. 60 metroko terraza dauka eta baratzerako 1.000 metro. Hilero 750 euro. Deitu 619 34 93 854.  
**Salgai.** Etxebizitza salgai Orenxan. Eguzkitsua eta bista izugarriak. Hiru solairu ditu 350 metro karratutan, eta lursaila ere badu. Interesa duenak, deitu

635730398ra edo idatzi *eare-so18@yahoo.es* helbidera.

### LAN BILA

**Etxeko lanak.** 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Interesa duenak, deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92ra.

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Aresoko Udala**  
2013ko URRIAREN 18AN  
BIGARRA ETA URKA  
ARRESO (NAVARRA)  
TEL. 949 23 127 / 400 200 200  
Dokumentuak 20 minututara  
Prestazioaren sartzearen katea:  
Eskaintza (Larrietako Bataz Auzoan) 19:00 orduan  
1. erantsia: irailaren 23an, leurtaraz, 19:00 orduan



Ibarra, Azoka eta Piparra azoka bereziaren antolatzaileak eta parte hartzaileak, herenegun kultur etxean egin zuten aurkezpenean. I.T.

## Gune eta postu gehiago izango ditu aurtengo Ibarra azoka bereziak

Hauspoa elkarreak antolatuta, hamalagarren urtez egingo dute igandean, Ibarra, Azoka eta Piparra

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Urteko hitzordu garrantzitsuetako bat dute Ibarra igande honetan, hilaren 22an: Ibarra, Azoka eta Piparra. Herriko elkarte ugari biltzen dituen Hauspoa elkarreak

antolatuta, hamalagarren urtez egingo dute Ibarra azoka berezia. Herriko nekazaritza eta abeltzaintzari bultzada eman, eta herrian egiten diren produktuak kaleratzea du helburu azokak.

Aurreko urteetan egin moduan, hainbat gunetan banatuko da azoka, baina aurtengo gune gehiago izango dira, izan ere, Ibai-Gain eta Arantzazuko Amaren plaza erabiliko dituzte. Halaber, San Bartolome plazan postu gehiago jarriko dituzte, lehen bazkarirako jartzen zuten karpa han-

dia kendu, eta leku hori postuetarako erabiliko baitute. Azokaren diseinua ere berritu nahi izan dute antolatzaileek, eta ondorioz, baita kartela bera ere, «azokan adierazten dena islatzen duela».

### Lehiaketak eta abereak

Aurreko urteetan egin moduan, Xepla elkarreak antolatzen duen Ibarra Piperraren Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute Emeterio Arresen. 22 bikotek pintxoak eta piperrada prestatu behar-

ko dituzte, Ibarra piperra osagai nagusi moduan erabilita. Antolatzaileek azaldu dutenez, «bere lekua eta garrantzia ari da finkatzen lehiaketa Euskal Herriko gastronomiaren kultur eremuan». Horren adierazle da Euskal Herriko leku askotako partaideak izango direla, hala nola, Donostia, Irun, Orereta, Lezo, Hernani, Lekeitio, Lekunberri edota Gasteiz.

Euskal Herriko Piperraren IV. Topaketa ere egingo dute gune horretan. Ibarra piparra, Peral-

tako Fugi piperra, Lodosako pikillo piperra, Ezpeletako biperra eta biper ezitia izango dira dastagai. Era berean, beste urteetan bezala, barazkiak ere egongo dira, Ibarra pipar errea prestatuko dute, eta taloak, gozogintza eta sagardo izango dira, besteak beste.

Bestalde, Tolosaldeko XVI. Ezti Lehiaketa ere egingo dute. Ezti eta yogurta dastatu ahaliko dira, eta horien onuren inguruan hitz egingo dute. Halaber, Aranen, ganadua jarriko dute, eta Ibarra ekoizten den azienda ezagutu ahaliko da. Ahuntzak, behorrak, behiak, txerriak, astoak... izango dira, eta baita hegaztiak ere.

### Postuak, tailerrak, bazkaria

San Bartolome plaza izango da bigarren gunea. Aurtengo leku handiagoa egongoenez, postu gehiago jarriko dituzte. Artisautza, Ibaratik Misio Taldea eta merkatari elkarrearen postuak, argazkiak eta Uzturpe ikastolaren eta Kilometroetako arropa izango da, besteak beste.

Bestalde, Ibai-Gain erabilera berria emango diote aurtengo. Haurren gunea izango da, eta tailerrak egongo dira, taloarena kasu. Arantzazuko Amaren plaza, berri, herri bazkaria egiteko erabiliko da, eta eguraldi txarra egingo balu, Belabieta pilotalekuan egingo litzateke.

Ikusi, erosi eta dastatzeko askotariko jaki eta materialekin osaturiko 60 postu inguru izango dira, abereak, lehiaketak, tailerrak, eta hori guztia musikak alaiturik, gaiteroak eta txarangaren doinuak izango baitira. Beraz, goiz pasa atsegina egiteko osagai ugari topatuko dituzte igandean Ibarra doazenek.

### ↓ Ibarra, Azoka eta Piparra

#### 1 GUNEA: EMETERIO ARRESE

■ **Produktuak eta abereak.** Ibarra baserrietako ekoizpena ikusgai, 10:00etatik 14:00etara.  
■ **Euskal Herriko Piperraren IV. Topaketa.** 10:00etatik 14:00etara. Ibarra piparra, Peraltako Fugi piperra (Nafarroa), Lodosako pikillo piperra (Nafarroa), Ezpeletako biperra (Lapurdi), Biper ezitia (Lapurdi).  
■ **Ibarra Piperraren Euskal Herriko IX. Lehiaketa Gastronomikoa.** 10:00etatik 12:00etara. 22 parte hartzaile izango dira. Lehiakide bakoitzak sei pintxo eta piperrada prestatu

tu beharko ditu. Irabazleak txapelak, oroigarria eta 200 euro, bigarrenak oroigarria eta 150 euro eta hirugarrenak oroigarria eta 120 euro jasoko ditu.

■ **Tolosaldeko XVI. Ezti Lehiaketa.** 10:00etatik 12:00etara izango da.

■ **Sari banaketa.** Piperrada Lehiaketa, 12:00etan; Ezti Lehiaketa, 12:30ean; Pintxo Lehiaketa, 13:00etan.



#### 2 GUNEA: SAN BARTOLOME PLAZA

■ **Postuak.** Artisautza, Ibarra urtean zeharreko ekitaldietako argazkiak eta Uzturpe ikastolako eta Kilometroetako arropa izango da. Horrez gain, Ibaratik Misio Taldeak postua jarriko du euren proiektuen inguruko informazioarekin, eta dirua biltzeko materiala salduko dute eta jatekoa eta edatekoa ere izango da. Halaber, Ibarra merkatari elkarrearen postua jarriko du. 10:00etatik 14:00etara. Orotara, gune guztiak kontuan hartuta, 60 postu inguru izango dira.

#### 3 GUNEA: IBAI-GAIN

■ **Haurren gunea.** Talo tailerrak izango dira gaztekoentzat. 10:00etatik 14:00etara.

#### 4 GUNEA: ARANTZAZUKO AMAREN PLAZA

■ **Bazkaria.** Bazkari herrikoia egingo dute, 14:30ean. Txartelak 20 euroan eskura daitezke, Zubiaurre, Sendi Ekintza, Txumitza eta Arkaitz Azpi tabernetan. Eguraldi txarra eginez gero, bazkaria Belabieta pilotalekuan izango da.

Realzalea eta Tolosaldekoa zara? Atzo Anoetara joan zinen Championseko partida bizitzera?

Bidaliz zure argazki, bideo edo mezuak Facebook bidez, Twitter bidez (@tolosaldeataria eta #TolosaldeaTxampions erabiliz) edo tolosaldean@hitza.info helbidera.



Beti nahi jatekoa

Garaiko garaiko janariak  
Arraikiatan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

# 2.300 euro banatuko ditu saritan larunbateko Tolosa-Hernio-Tolosa lasterketak

1.000 metroko desnibela eta 20 kilometro dituen ibilbide «gogor» eta «atsedenik gabea» bete beharko dute partaideek

Mikel Iraola Tolosa

Larunbatean, Tolosa-Hernio-Tolosa mendi lasterketa jokatu da. Bi urtez behin, Aralarko Adiskideak elkarteak antolatu ohi du proba hau, eta mendi lasterkarien artean gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da pixkanaka.

Goizeko hamarretan emango zaio hasiera lasterketari Tolosako Triangulo enparantzan. Gurutzera iraino igo eta berriz ere leku berera itzuli beharko dute. Guztira, 20 kilometroko luzera du, horietako hamar goruntz, eta beste horrenbeste beheruntz. Korrikalariak 1.000 metroko desnibelari egin beharko diete aurre, izan ere, Tolosa itsasoko mailatik 76 metrora dago, eta Hernio, berriz, 1.076 metrora.

Antolatzaileen hitzetan, lasterketa «oso gogorra eta atsedenik gabekoa» da, izan ere, aldapa gora edo behera du ibilbidea, tartekorik gabe. Dena den, hori aukera gisa ikusten dute: «Azken bi saioetan izan ezik, urtetik urtera lasterketa osatzeko behar den denbora gutxitu egin da, eta horrek bi gauza esan nahi ditu: lasterketa oso gogorra dela eta partaideak gero eta gehiago prestatzen dutela beren burua lasterketa honetan parte hartzeko».

2007. urtean Fernando Etxegarai ezarri zuen markarik hobereana, ibilbidea 1:24:44an burutu ostean. Berarena da baita bigarren hobereana ere, bi urte lehenago 1:26:52 egin eta gero. Emakumezkoetan, berriz, denborarik hoberean azken lau urteotan garaile izan den Nerea Amilibia zizurkildarrarenak dira: 1:47:23 2011n, eta 1:48:09 2007. urtean.

Duela bi urte jokatu zen azken



Jokin Lizeaga, pasa den urteko irabazlea, helmugan. A. IMAZ

edizioan, guztira 50 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan, 47 gizonzkoek eta hiru emakumezkoek. Aralarko Adiskideak elkarteak antolatzaile taldeak aurreten zenbaki hori hobetzea du helburu.

Amaitu ondoren, 12:30ak inguruan, sari banaketa izango da. Guztira, 2.300 euro banatuko dira bost azkarrenen artean. Tolosaldeko gizon eta emakume azkarrenari ere saria emango zaio. Horrez gain, partaide guztiei motxila bana oparitu zaie.

2011n, eguraldia lagun, jende mordoak bildu zen korrikalariak animatzeko, eta antolatzaileek horretarako dei egin dute honakoan ere.

## ↓ Azken irabazleak

### GIZONEZKOAK

Joxe Mari Artea.	2:07:41
Juan Mari Garin.	1:30:14
Fernando Etxegarai.	1:26:52
Fernando Etxegarai.	1:24:44
Walber B. Becerra.	1:27:58
Jokin Lizeaga.	1:30:34

### EMAKUMEZKOAK

Maider Mendia.	1:57:41
Nerea Amilibia.	1:53:59
Nerea Amilibia.	1:48:09
Nerea Amilibia.	1:57:14
Nerea Amilibia.	1:47:23

## Irudia Zizurkil



## ZIZURKIL ETA LLADO, ANAI

Pasa den asteburuan, Zizurkilgo 55 herritar Gironako Llado herrian izan dira bi herrien arteko senidetze hitzarmena sinatzen. Ostiral iluntzean iritsi ziren bertara zizurkildarrak, eta afaldu ondoren kontzertu batez gozatu ahal izan zuten. Larunbatean, senidetze akta sinatu zuten, eta Lladoko alkateari Zizurkilgo aginte makila eman zion alkateak. Gero herri kirol saioa izan zen. Elkarrekin bazkaldu eta ondoren goizaldera arte luzatu zen musika saioa izan zuten. Igandean, berriz, gazta azoka bisitatu eta buelta egin zuten. HITZA

## Basagaingo Burdin Aroko herrixkara bisita gidatuak egiteko aukera Anoetan

M. Iraola Anoeta

Urtero bezala, Aranzadi Zientzia Elkarteak indusketa lanak egingo ditu Basagaingo Burdin Aroko herririk, iraileko bigarren hamabostaldian.

Bertan aurkituntza garrantzitsuak egin dira: metalezko objektuak –aizto, iltze eta goldeak–, zereal eta animalia aztarnak, errota, zeramika piezak, beirazko lepoetako eta eskumuturretako aleak... Bertako adituak azalpenak entzunaz bisita gidatuak egiteko aukera dago, astelehenean larunbatera. Bihartik 26ra izango da aukera, eta 943651200 telefonoan adostu behar da eguna eta ordua.

## → Laburrak

### Qi-Gong ikastaroa urritik abendura, Anoetan

**ANOETA** Qi-Gong ikastaroa izango da urria eta abendua bitartean Anoetako Mikelasagasti auditorioan. Bereziki pre eta post menopausian dauden emakumei zuzendutako ikastaroa da. Ostegunetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Matrikulatzeko epea irailaren 27an amaituko da, eta udaletxean edo liburategian egin daiteke. Prezioa 100 eurokoa da.

### Festetako balorazio bilera, ostiralean Alkizan

**ALKIZA** Datorren ostiralean, hilaren 20an, aurtengo festen balorazio bilera egingo dute Alkizan. Hitzordua, 22:00etan izango da Don Juanen.



HITZAK harpidedunentzat  
2 sarrera pare ditu

### TXAKOLIN EGUNA

Irailak 21, larunbata  
16:00etan Amasan



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat  
2 sarrera pare ditu

### "HIRUROGEITAHIRUKOAK" dokumentala

Irailak 19, osteguna  
20:00etan Tolosako Topic-en





'Jatorri anitz, herri bat' ekimeneko kideen agerraldia, atzo, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. HITZA

## «Pertsona ugari osasun zerbitzurik gabe» gelditu direla salatu dute

Jatorrin, TOPA eta beste hainbat Gipuzkoako gizarte eragile Eusko Jaurlaritzan izan dira

Asier Imaz

*Jatorri anitz, herri bat* dinamika Gipuzkoako hainbat gizarte eragile osatzen dute, eta tartean, eskualdeko TOPA eta Jatorrin daude. Gipuzkoar guztiarentzat «esku-bide guztiak» aldarrikatzen dituzte ekimeneko kideek, eta atzo Eusko Jaurlaritzan izan ziren agerraldi batean, euren eskaerak bertan plazaratu zituztelarik. Bertan, «pertsona ugari osasun zerbitzurik gabe» gelditu direla salatu zuten.

Gipuzkoa mailan osasun esku-bidearen hainbat urraketa gertatzen ari direla dioen txostena egin zuten gizarte eragileek, eta ondoren, Jon Darpon Osasun Sailburuari eta Eusko Legebiltzarrean ordezkatuak dauden alderdi politikoei gutuna bidali zieten, diagnostikoa partekatzeko bilera eskaera eginez, eta arazo horren

### ↓ 'Jatorri anitz, herri bat' ekimena

#### ESKAERAK

- **Osasun arreta bermatzea.** Euskal Herrian bizi diren pertsona guztiak osasun arreta bermatzea, baita egoera irregularrean daudenei ere.
- **Osasun txartel unibertsala.** Pertsona guztiak osasun txartela izateko aukera eskaintzea. Berau ukatzea edota lortzeko zailtasuna jartzearen aurka bai-kaude.
- **Eusko Jaurlaritzari.** Osasun txartela lortzeko urtebeteko errolda eskakizuna bertan behera uztea.
- **Familia medikua.** Pertsona guztiak familia medikua bermatzea.
- **Normalizazioa.** Osasun arreta normalizatu guztiarentzat, larrialdietara jotzera behartu gabe. Osasun harretako zerbi-

konponketan inplikatu zitezten eskatuz. EH Bildu alderdiaren erantzuna bakarrik jaso zuten, eta eurekin elkartu ondoren, Eusko Legebiltzarrean agerraldia

tzuen fakturazioa indargabetzea.

- **Berrordaindu.** Berrordaintzearen ondorioz ezarritako trabak indargabetzea. Gaixo kroniko zein pentsiodunek zailtasun handiak izaten dituzte tratamendua jasotzeko botiken kostu altuengatik.

#### PARTAIDEAK

- Eusko Islamiar Kontseilua, Anitzak, Bai Euskal Herriari, LAB, Esperanza Latina, Kolore Guztiak, Elkartzan, EHE, Harresiak Apurtuz, Bidez Bide, CNT, Adiskidetuak, Colectivo Bachué, Malen Etxea, Jatorrin, Arrats, Al Fatiha, Banda bat, Topa, Asoleus, Eraldatzen, STEE-EILAS, Sortzen, Eleak, ESK, IKasle Abertzaleak, Bilgune feminista, SOS Arrazakeria...

egiteko aukera eskaini zien koalizio abertzaleak. Ondoren, Osasun sailetik bilera egiteko deialdia jaso zuten, eta hauekin ere «laster» bilduko dira.



Irsgarritasun planaren barruko obrak bisitatu zituzten herenegun. HITZA

## Tolosako Udala irsgarritasun planarekin aurrera

Tolosako Errotan 'Sobre ruedas' dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur, 19:00etan, mahai inguru eta guzti

A. Imaz

Tolosaldean eta Tolosan Mugikortasun Astea ospatzen ari dira, eta herenegun, Tolosan, Irsgarritasun Planaren barruko obrak ikusi zituzten. Horrekin batera, udaletik azaldu dutenez, datorren urtean Irsgarritasun Planarekin jarraitzeko konpromisoa hartu du udalak.

Eskualdeko egitarauari dagokionez, gaur, 19:00etan, *Sobre ruedas* dokumentala ikusteko aukera egongo da Tolosako Errotan. Ondoren, Alfonso Sanz mugikor-

tasun adituarekin mahai inguru antolatu dute.

#### Poxpolo ta Konpainia

Mugikortasunaren Astearekin bat eginez, egitasmo berezia presatu dute Poxpolo ta Konpainiak eta Tolosaldea Garatzenean hila-ren 21ean, 17:00etan, Usabalen. Bideo grabaketa egingo dute, eta abesti berri bat ere egin dute, *Aire garbia* izenekoak. Bide batez, «leku guztietara kotxez joan beharrik ez dagoela» aldarrikatu nahi dute.

Bideo kliparen grabaketa egiteko laguntza behar dutela azaldu dute Poxpolo ta Konpainiak. Bertan parte hartzeko, Tolosako Usabal kiroldegitik Alde Zaharra egingo dute paseotxoak. Bizikletan, patinetean, patinetan... joateko deialdia egin dute. *Aire garbia* abestia *tolosaldea.hitza.info*-n entzun daiteke.

# Egin HITZAren HARPIDEDUN

irailaren 1etik urriaren 31ra arte, ETA JASO:

**OLASAGASTI**  
kontserba produktu sorta

[www.conservasolasagasti.com](http://www.conservasolasagasti.com)

**SEGORE ETXEBERRI**  
nekazal turismoa, bi lagunentzako asteburu baterako egonaldia\*

**ZOZKATUKO DUGU**  
\*Ostrial gauetik, igande goizera PENTSIDO OSOAN

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

## berria bekak 2013

Zuzenketa-itzulpen gintza arloa

# berria beka bat

Bekaren aurkezteko egia: 2013-09-25 • Bekara egiteko oina eta beka deritza [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean eskura daitezke

**Norentzat:**

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabekoentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

**EDUKIAK:**

- Herri-irratiko irakurketa, irakurketa, irakurketa
- A 2013/urteko diru laguntza
- BERRIA: Andoainaren duin egotza laguntza

# Bertsolari Txapelketa Nagusia Amasa-Villabonan abiatuko da irailaren 29an

Amaia Agirre, Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze izango dira eskualdeko ordezkariak

## Asier Imaz

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia hilabete honetan jarriko dute abian, eta lehen saioa Villabonako Behar Zana pilotalekuan jokatu da, irailaren 29an, 17:30ean. Sei bertsolari ariko dira lehian Amasa-Villabonan: Alaia Martin, Fredi Paya, Jon Martin, Odei Barroso, Iker Zubeldia eta Nerea Elustondo.

Eskualdeko lehen saio honetan egongo ez diren arren, txapelketan Tolosaldeko hiru bertsolari

ariko dira: Amaia Agirre, Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze. Hendaian ekingo dio txapelketari Agirrek, urriaren 12an. Irazu Altsasun igoko da lehen aldiz oholtzara, urriaren 13an, eta Mendiluzek txapelketaren bigarren faseara arte itxaron beharko du bertsotan hasteko. Irurarraren lehen saioa Murgian izango da, azaroaren 17an.

Txapelketa nagusiaren finala, duela lau urte bezala, Barakaldoko BEC-en jokatu da, hain zuzen ere, abenduaren 15ean. Maialen Lujanbio bertan egongo da, txapelaren defentsa egiteko prest. Txapelketa honetan egongo ez dena, Andoni Egaña izango da, aurtengoan ez parte hartzea erabaki baitu.

Saioetarako eta finalerako sarrierak erosi nahi dituenak, beste

ak beste, *bertsozale.com* webguneari izango du horretarako aukera. Aipatu, finalekoak jadanik salgai aurkitzen direla.

## Faseak eta sailkatzea

Hiru sailkapen faseetan banatuko da txapelketa: kanporaketak, finalaurrekoak eta finala.

Kanporaketetan 36 bertsolari izango dira lehian, guztiak herrialdeko txapelketetan sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira, eta saio bakoitza lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo faseara; eta puntu gehien batzen dituzten hamabietan osatuko da finalaurrekoetan aritu den taldea.

Finalaurrekoetan 24 bertsolari lehiatuko dira fase honetan: 2009ko sei finalista eta kanpora-



2009ko BEC-eko finalean Maialen Lujanbio eta Joxe Agirre. HITZA

ketako saioetatik sailkatu diren 18 bertsolariak. Bi itzuli izango ditu finalaurreko faseak: lau saio izango dira lehenengoan eta hiru bigarrenean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian ez dute kantatuko. Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da bigarren itzulira; puntu gehien batzen dituzten beste 14 bertsolarirekin osatuko da finalaurrekoen bigarren itzulira pasatzen den taldea. Taldeak

aldatu egingo dira lehen itzulitik bigarrenean.

Finalean zortzi bertsolari ariko dira: 2009ko txapelduna eta finalaurrekoetatik puntuazioz sailkatu diren zazpiak. Finala hiru saioetan banatuko da: goizean zortzi bertsolariak jardungo dira, eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari ere. Azkenean, puntu gehien batu dituzten bi bertsolariren arteko lehia egingo da: buruz burukoa. Bertatik aterako da txapelduna, egun guztiko puntuak batuta.

## Amaia Agirre • Bertsolaria

# «Tenplearen eta tentsioaren arteko oreka topatzen saiatuko naiz»

A. Imaz Amasa-Villabona

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian final laurdenetan gelditu zen Amaia Agirre (Villabona, 1977), final erdietetatik puntu baka-rrera. Lau urte igaro dira, eta billa-llabonatarra berriro ere prest da ohol-tza nagusira igo, eta barruan duen guztia emateko. Adinean gora joan ahala, beldurrak ez doa-zela baretzen dio Agirrek, baina bai «ilusioa eta erronkarako de-sioa».

**Hitzordua iritsi da berriro. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan egote hutsa, ez da makala.**

Bai, norberak bere herrialdeko txapelketan lortzen duen postua- ren arabera eskuratzen da edo galtzen da Euskal Herrirako txar- tela. Nire kasuan duela bi urte jo- katu zen Gipuzkoako Txapelke- tan egindako lanaren saria da Txapelketa Nagusian parte har- tzeo aukera, eta ahal den neur- rian aprobetxatzen saiatzea da helburua.

**Zure burua nola iritsi da txapelketa- ra, eta non jartzen dituzu muga- rriak?**

Aurten ez dut helburu zehatzik sailkapenari begira. Nire buruari begira presio handirik gabe, eta bertsolaritzan ibilbide bat dagoe- neko eginda daukan baten mo-

duan joan nahi nuke. Gazteak dira euren lekua aurkitu nahian dabiltzanak eta atzetik bultzaka datozenak. Tenplearen eta tentsioaren arteko oreka topatzen saiatuko naiz, eta hortik aurrera- koak ez nau itsutzen. Adinean gora joan ahala beldurrak ez doa- z baretzen baina ilusioa eta erron- karako desioa itzaltzen doa, nire kasuan behintzat.

**«Egia esan, burua txapelketan baino etxeko kontuetan murgilduta daukat»**

**«Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusian ez dut helburu zehatzik sailkapenari begira»**

**Nola prestatu duzu, eta nola presta- tzea gustatuko litzaizuke?**

Prozesu hau urte hasieran egiten ditugun promesen antzekoa da. Udaberrian udazkenara begira jartzen ahalegintzen naiz, burua txapelketarako prestatzen, baina ia denoi gertatzen zaigun mo- duan gure asmoak askotan udako sargoriak urtu egiten ditu. Udara, familiako gorabehera batzuk tar- teko, mediku eta kontsulta artean



HITZA

pasa behar izan dut, eta nire uda- berriko asmoak udazkeneko or- bel bihurtu dira. (Barreak). Ho- rrelaxe tokatu da, eta egia esan burua txapelketan baino etxeko kontuetan murgilduta daukat.

**Lau urtetik behin jokatzeko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Maialen Lujanbiok txapela jantzi zuen hartatik hona, zeintzuk izan dira**

**zure ustez, lau izen propio esangura- tsuenak bertsolari munduan, eta zergatik?**

BEC-eko finalean lehen lau pos- tuetan geratu ziren bertsolariak plaza asko egiten ari dira. Ez dira erreferente bakarrak, ordea. Zaz- pi bertsolari badira ia-ia finalista ziur azken edizioetan, eta horrek zerbaite esan nahi du. Bi-hiru fina-

letara jarraian sailkatu den edo- nor da atzetik datozenen eredu. Finalera iristeko zoria izan ez zu- ten asko ere antolatzaile askoren gustuko dira, eta herriz herriko zirkuituan presentzia handia dute. Gazteak dira baina dagoe- neko eskarmentu handia dute ohol-tza gainean.

**Zeintzuk ikusten dituzu favoritok txapela jantzeko, eta zergatik?**

Lehen esan bezala orain arte txapelaren lehian aritu diren berbe- rak ikusten ditut. Denok buruan ditugun hiru edo lau izen horiek, hain zuzen. Egundak bakarrek la- nak erabakiko du, ordea, noren buruan jantzi hain sari preziatua, eta denetik gerta daiteke. Nik, hala ere, argi daukat finalean au- rten izen berri bat baino gehiago izango ditugula. Txapelerako lehian ez, baina finaleko abani- koa osatzen bai.

**Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze izango dira eskualdeko beste bi bertsolariak. Definitzen hasita, nola de- finituko zenituzke?**

Horien eskarmentua eta espe- rientzia ez dago zalantzan jartze- rik. Irazuk ez du zorte handirik izan azken txapelketetan, biko- re badakigu elkarren berri, az- ken txapelketetan batera kanta- tzea eta sufritzea egokitu zaigula- ko, baina horrek ez du esan nahi aurten arantzarik kentzeko auke- rarik izango ez duenik. Eta, Men- diluze, badakigu zer nolako bertsolaria den, eta zer egiteko gai den. Inor gutxik egiten duen mo- duan egiten du bertsotan, eta ber- toso tartean egiten dituen malaba- rak eta joskerak ez dira oharkabe- an pasatzen, beraz, argi!



Colin Pigott eta bere emazte Ray Pigott, herenegun, Tolosako Araba etorbideko biribilgunean. I.T.

Bentley etxeko 1930. urteko auto eskusiboarekin Ingalaterratik Espainiara burutzen ari diren hamabi eguneko bidaiari, Tolosan egin du geldialdia Ingalaterrako Pigott familiak.

## 80 urteko historiadun gurpiletan bidaiari

**Iñigo Terradillos** Tolosa

**B**idaiaitzeko modu ugari daudela gauza jakina da. Oinez, garraio publiko erabiliz edo norbere autoarekin egin dezake bidaiariak jomuga moduan jarri duen tokira iristeko bidea. Tolosan geldialditxo egin duen Ingalaterrako bikotearen kasuan, lau gurpildun auto berezia aukeratu dute, 80 urteko historia duen Bentley etxeko kotxea, hain justu.

Colin Pigott eta bere emazte Ray Pigott galduta ibili dira aste honetan Euskal Herriko errepideetan, eta Tolosako herrigunean sartzera behartuta ikusi dituzte euren buruak. Santandererako (Espainia) noranzkoa zuten helburu, eta okerreko bidean zihoa-

zela konturaturik sartu ziren Tolosara. Bertako Araba etorbideko biribilgunean patxada handiz geratu, eta Bentley etxeko autoaren barruan, mapa aztertzeari ekin zioten.

Estilo klasikodun auto dotorea dela kontuan harturik, ikusmin handia piztu zuen une horretan euren aldamenetik igaro zirenen. Ez da ez, harrizkoa, benetan baita eskusiboa Pigottarren autoa. 1930. urtean eginiko autoa da, eta Le Mans-eko 24 orduko Txapelketan parte hartzeko prestatua izan zen. Balioari dagokionez, etxe arrunt batengatik ordaindu daitekeenarekin pareka daiteke.

Bada, auto berezi eta bakar honetan hamabi eguneko bidaiari burutzen ari direla egin dute tupust

Tolosarekin. Ingalaterratik Frantziara, bertatik Euskal Herrira sartu, eta hemendik Espainiara. Han egun batzuk igaro ostean, itzulera Ingalaterrara.

Ez da, ordea, auto honetan egin duten lehen bidaiari. Iragan maiatzean Australian izan ziren gisa horretako autoen topaketa batean, eta pasa den urtean bi hilabete egin zituzten autoz Hegoafrika gurutzatuz.

Euren istorioa jatortasunez kontatu eta hainbat argazki egiteko baimena eman ostean, Donostiako norabidean jarri zituzten gurpilarik, irribarretsu agur esanez. Kasualitatearen erruz, Pigott familiak euren mapan leku-tu du Tolosa, eta Tolosak, berriz, historia handiko auto bat ikusi du bere kaleetatik.

## Festa batzordeak parte hartze zabalagoa izatea lortu nahi dute

Ibarrako San Bartolome jaien inguruko balantze baikorra egin dute, eta herritar ugari izan dela nabarmendu dute

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako festa batzordeak Ibarra-ko jaien inguruan balantze baikorra egin du. Dena den, datorren urtera begira festa batzordeak «parte hartze zabalagoa eta eraginkorragoa» izatea lortu nahi dutela adierazi dute.

Festak orokorrean «oso ondo» joan direla ondorioztatu dute festa batzordean. «Parte hartzea handia izan da ekitaldi guztietan eta giro ona nabarmendu da ezereen gainetik», esan dute. Albiste ez hain onak ere utzi dituzte festek, eta bi nabarmendu dituzte festa batzordetik: «Ezin dugu salatu gabe utzi igande goizaldean izan zen sexu eraso; hori dela eta, festa batzordeak, Ibarra-ko

kuadrillek eta Ibarra-ko Udalak beste behin eraso hori gaitzesten dugu eta elkartasuna eta babesa erakutsi emakumeari eta bere hurbilekoei. Bestalde, ezin ahaztu Jon Yustosoren heriotza eta danborradek eskaini zioten omenalditxoak».

Festa batzordetik esan duteenez, batzordea osatzen dutenak «sentsibilizazio desberdineko herritarrek» dira. «Norbanako, kultur talde, elkarte eta kirol taldez osatua da batzordea eta horrek egiten du berezi». Hala, hurrengo urtera begira, «aurtengo festa batzordeko parte hartzea ikusirik», hausnarketa egin dute batzordeko kideek, eta «parte hartze zabalagoa eta eraginkorragoa» lortu nahi dute. «Hurrengo urterako festa batzordeak herritar, talde edo elkarte guzti-guztiak gonbidatzen ditu jaien antolaketan parte hartzeraz», azaldu dute.

Festa batzordetik Ibarra-ko jaiak posible egin dituzten norbanako zein elkarte guztien laguntza eskertu dute.

## → Laburrak

### Ikasturte berrirako ikastaroetan izen ematea

**LIZARTZA** ▶ Ikasturte berrirako hiru ikastaro antolatu ditu Lizartzako Udalak: gimnastika, pilota eta pilates. Gimnastika urriaren 3an hasiko da, astelehenean eta ostegunetan emango dute, eta 20 euro ordaindu beharko da. Pilota ostiralean izango da, urriaren 4an hasiko da, eta 6 euro ordaindu beharko da. Pilates ikastaroa, berriz, astearte eta ostegunetan izango da, 20 euro ordaindu beharko da, eta urriaren 17an hasiko da. Udaletxean eman beharko da izena.

### Errioxara irteera antolatu dute urriaren 5erako

**LIZARTZA** ▶ Errioxara Heredad Ugarte upategira irteera antolatu du Lizartzako Udalak, urriaren 5erako. Etzi, hilaren 20a baino lehen eman beharko da izena, eta 40 euro ordaindu beharko da.

### Marce Tenaren tailerreko lanak kultur etxean ikusgai

**IBARRA** ▶ Marce Tena ibartarraren marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerrean iragan ikasturtean parte hartu zuten 5 eta 11 urte bitarteko 16 gaztetxoren lanak daude ikusgai Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean. Irailaren 27ra arte bisitatu ahalgo da.

**Tolosaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



22°  
16°

GOIZA	LAINOTUA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	20°
HOTZENA	14°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**Faxa:** 943 65 00 18  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa.  
**Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona-aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## XVII. Udako Argazki Lehiaketa



## GARRAIO BIDEEN AUKERAKETA

Santoriniko (Grezia) portuan Irene Irurzunek ateratako argazkia da: «Desberdintasun ederra bi barkuren artekoa». Leire Amonarrirek «Lisboako tranbia kolorez beteta» bidali du, eta Iker Arregik Indiako Uttarakhanda estatuan, Himalayan atera-

tako argazkia da azkena: «Porteatzaileak kontrata daitezke saski batetan sartuta, gora igotzeko. 60, 70 eta 80 kiloko pertsonak igotzen! Izugarria!». Argazkiak bidaltzeko epea astelehenean amaituko da. IRURZUN/AMONARRIZ/ARREGI

## Agurrak



### Urte askoan ama-semeak!

Hiru ospakizun etxe eta egun berean. Zorionak Karmentxu, zure erraina guztien partetik.



### Zorionak!

Eider Urkizar Landa. Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu goxoak etxekeoen partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Tolosa.** Mugikortasun Astearen barruan, gaur, *Sobre Rue-das* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia izan da, Alfonso Sanz mugikortasunean adituarekin. 19:00etan, Bidaia-riren Txokoa izango da.
- **Ikaztegieta.** Urriaren 5ean, larunbatean, Euskal Azoka eguna ospatuko dute, eta bazkaritarako txekor errea izango da. Txartelak salgai egongo dira hilaren 27a, ostirala, bitartean, Toki-Alai eta Ostatu tabernetan. 25 euro balio du txartelak eta langabe-

tuek 20 euroren truke erosi ahal izango dituzte.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 65 24 38.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**GAURKO ESKAINTZA**

**Mauka berria**

**Orion bi gau bungalowean**



**Prezioa 130€**

ORIOKO KANPINA  
Oronko hondartza  
Oron 20810 GIPUZKOA  
Tel.: 943-83 48 01  
kanpina@terra.es  
www.oriokanpina.com

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

**berria**  
taldea